

## XX. mendeko literaturaz. Erbestea (1936-1956). Laburpena

RIEV, [1990-11].

Erbestaldi hau, 1936ko gerra zibilaren ondorengoa da.

Hiru multsoan irten ziren; 1goa) Gerraren hasieran, Frankoren tropak Irun hartu zuten arte (uztailaren 18tik irailaren 4 arte, Ifarraldera eta Frantziara); 2goa: Bizkaia eta Santander eta Asturiasetik, Bilbo erori zenetik 1937 ekainaren azken arte; 3goa: Catalunyaetik gerra zibila amaitu zenean, 1939go hasieran,

Hiru olatu horietan zenbat gizon, emakume eta haur irten ziren: 150.000 inguru.

Gipuzkoak eta Bizkaiak elkarrekin 850 biztanle zituzten.

Ikus erbestaldi honen proportzioa.

Erbesterako norabideak: Ameriketara milaka batzu, mundu gerra 1939, iraila arte: Venezuela, Chile, Argentina, Uruguay, Mexico, Santo Domingo, Guatemala, Colombia, batez ere; baina *erbestea*, Ifarraldea ere bazen, Francopean idazleek bizi izandu zutena ere barruko-erbestea zen, zeren eta euskara bera eta euskalduna debekatuak zeuden, eta idazleak oraindik gehiago.

Euskal liburuak argitaratzeko bidea Buenos Airesen sortu zuten berehala, 1940an: "Ekin" argitaletxea Isaak López Mendizabal tolosarrak eta Lizarrako Ander Maria Irujok egin zuten lan paregabe hau. Hemen argitaratu zen erbesteko lehen euskal liburua: López Mendizabalen *Xabiartxo*, haurrentzat idatzia izan zen Tolosan gerra aurretik, Ameriketara birargitaratu zuten.

Gero inprimatu ziren: 1945an, Jokin Zaitegi-ren itzulpen bat, H. Wadsworth Longfellow-ren *Evangeline*, Guatemalan bertan; eta Mexican Telesforo Monzon-Olasoren *Urrundik*. Hurrengo urtean, 1946an, hiru izan ziren Ameriketara argitara eman ziren literatur-liburuak: Jokin Zaitegi-ren bi itzulpen Mexican: *Sopokel'en antzerkiak*, eta *Goldaketan*; eta Juan Antonio Irazustaren *Joñixio*, elaberria, Argentinako Ekin-en. 1947an: Pedro Ormaetxea Aldamaren ("Lontzi Aba") *Ipuitxoak*, Ameriketara, eta, alemanak menderatuak dagoeneko!, Monzonek argitaratzen du Miarritzen; *Gudarien egiñak*, eta liburu hauen ale batzu pasatzen dira Hegoaldeko ixilpe ilun eta antzura. Herbestearen eta herriaren bitarteko elkarriketa bide ederra irekitzen hasi ziren lehen euskal literaturaren liburu hauek.

Hau da hasiera.

Laburpen honetan liburuak utzi eta aipatu behar dugu garrantzi handia izan zuen euskal aldizkari baten sorrera: *Euzko-Gogo*, 1950an, Jokin Zaitegik bakarka sortu eta laster "Orixe" eta Andima Ibiñagabeitia, biak, joan zitzaizkion alditxo bana bertara laguntzera.

1950. urte honek euskal literaturaren ardatz bezala jokatu zuen.

Batetik, aldizkari berrian idazten dute Jokin Zaitegi berak, eta aipa berri ditugun bi idazle lagunak ere. Hor hasten dira idazten laster Polikarpo de Iraizoz, Valentin Aurre-  
Apraiz, eta Caracastik Bingen Amezaga eta Toribio Echevarria; eta gazteak diren beste batzuk: Salvatore Mitxelena, Juan San Martin, Gabriel Aresti, Domingo Peillen, Jon Mirande eta "Txillardegia".

Hala eman zion hasera Ameriketako eta Hego eta Ipar-Euskalerriko euskaldunen artekoari.

Bestalde, *Egan* aldizkaria da Euskalerrian, Donostian, literaturari eskeinitako aldizkariarik garrantzitsuena. Hemen idazten zuten batzu, *Euzko-Gogoan* ere egiten zuten lan; diferentzia batekin; hemen zabalago idaz zezaketen; baina Espainiako zentsuraren begi luzeari beldur, izenordez izenpetuko zituzten batzuk bere lanak, eta, bestetik, *Eganeko* lanetan autozentsurak murrizten zuen idazlearen askatasuna.

Nolanahi, Euskalerraren eta erbestearen arteko kultura mailako harremanetarako biak izan ziren garrantzi handia izan zutenak.

*Zeruko Argia* (gero *Argia*) izan zen aurreraxeago erbestearen eta herriaren arteko lokarri estu bat.

Bitartean, liburuek jarraitu zuten han hemen irteten, gero eta zabalago, 1966 arte.

Hau baita, gaurkoz, nire *Erbesteko* muga.